

# BIGIREA.



(NERE ADISKIDE KARMELO ECHEGARAY-KOARI)

¡A sermo garratza gaur mesa-nausitan abade jaunak egindabena! Garra botateeban begietarik, eta ¡selango ukubillkadak emotensitusan pulpito gañian! Manu errementariak sutegian es dau malloarekin ots andiagorik egiten.

¿Ser eteeban ain asarre izateko?

¡Eta ikusibasendute Erremijia beti santu artean dabillen neska-zarrak serlako negar-malkoak botatensitusan!

¿Se ardura eutzan bada Erremijari ain biotzera eltzeko abade jaunaren esana? Orain es gara garizuman Kristoren eriotza entzuteko, es bada gabon pozgarri inguruban.

Bego, bego, elduko gera: ondiño esdot esan seren gañera sermoia izan dan eta Erremijari ondo begiratu eskero ikusiko dosube atzo simel, argal, makurrarek es ditusala beti izan es gorputza, es arpegia orain ditusanak. Jaungoikoak bakarrik daki se oroitza etortentzan bere gogora.

¿Baña ser san sermoiori, se ondiño esdoskusu esan besterik es bada abadean asarrea eta neska-zarraren negarra?

Orain goyas. Ibarrondon bigira izandala edo izangodala jakindau abade jaunak, era iges Bedargoson subertatusana barriro subertatu esdeiten egin-dosku gaurko sermoia. Bildur nas es-dedilla dana alperrik izan. Uste dot berak bere es dabela siñistuten gausa andirik aurrera-tukodabenik. ¿Ser izan san bada Bedargoson?

Bedargoson bizidira Machin eta Machalen, senar emasteak, eta Mariñazi, emastearen ama. Echea saintzeko dauke Chichi, eche-cha-

kur chiki suri eta baltza, bustan kirimillatu, belarri susena, chikia baña biskorra; es da iñor kanpokorik andik joango bere saunka entzun baga, eta, es da bildurrik eguno ango ollorik aseriak eramango da-benik.

Eskontza onek baditu senie-alaba bi, baña es dira echean: alaba, Josepantoni, amasaspi urte situsanian joansan Bilbora uesabaren senidabaten echera, ume sain eta josten ikasteko. Umeak asidira, josten ikasidau, baña gerria gogortu eta oñak eta eskubak bigundujakos abar-kak jantzi eta layetan egiteko, eta alan es dau Bilbotik baserrira etor-zeko gogorik.

Mutilla, Chomin, trozuetan dabill. Orain urte bi joansan San Llaurenteko erromeriara: an san Margari Zelayeta-koa. Zelayeta dago Bedargosoren ondoan; Chomin eta Margari esautenziran gaste gaste-tatik, adiskidak siran eta Chominek ateraeban Margari aureskura.

Sekula ordura arte izan esebana, Margariren aurrean dantza egi ebanean au erreskan sartzeko, odolak egitentzan pill pill biotzean. Ateraeban barriro bere arratzalde aretan eta situsan chanponak eman-situan Mendaroko erroskarik obeenak Margarirentzat erosten. Baña Margari da eche-jauntzako alaba, eta Chominek berak beste edo ge-yago ekarri nai leuka eskontzara, eta echean es dago, bere gurasoak es dira aberatzak, eta augaitik buruko miñ asko izanda jakieban nola dan egia anchinako kantak diñubana:

Amodioa bai da arantza sorrotza

Señek sulatzenduben portizki biotza.

Biotza minberatuta joansan; polito irebastendau argiñ ona isanda eta diñubanes urte bi barru etorrikoda esteguba isateko; baña artietan, aita eta amak saintzen ditube lurrak eta abereak, ama-amak lagundu-ta, sergaitik zarra izanarren da sintzua eta saintzenditu oiloak eta la-pikoa goruetan egiñagaz.

Domuru-santubetarako batusitubesan artoak, gastiñak eta sagarrak, kendueutzen latza gastiñari, maluta artoari eta Mariñazi eta Macha-lenek goreditube sagarrak, kana eta urtebete obeenak erropasuri ar-tean sartuta San Blas egunean bedinkatzera eramateko eta bitartean areri umao usaiñ gosoa emateko. Orren gañera eriñdabe garia eta giro ona eginda ederto ernedia.

Baña saso onetan egunak laburrak dira, bertatik dator San Tomas, eta egun aretan pagatu biarda baserriaren errenta. Es dabe utzik egin nais sergaitik, batetik, beti, aitarik semera, egin-dabe orrela eta bes-

tetik badakie egun aretan uesabaren echean dala eurorentzat baskari ona eta uesaba-andreak es ditusala bialduko gabonetarako makallao barik eta amazarrarentzat chokolate baga.

Kortasariarentzat diruba badabe sergaitik Chominek, seme ona, bialdudau ogeiko bat echeko arasoetarako eta gabon onak isandajesan, aldebates ondo dabillega jakineraiteko. Ori isan es arren esleuke ardurarik, sergaitik isanda Mari Ollasko esatera, berak erosikoditusala gabon aurretik saltzeko ditubesan egastijak, eta Mari Ollaskok eros-tendabenean darua eskuban diruba.

Egin barik daukena, eta es dago astirik, eurok bakarrik egiteko, da arto garautea; orretarako pentzatudabe ausolanean eta ausoetan eskatudabe laguntasuna bigira eukiteko, beste echetan isatendan besela bisarra danean.

Lau edo bost egun San Tomas aurretik zierduben apal-ostean Machin eta Machalenek artaburubak sukaldera eramaten ichaintzen-ditubesan bigirara etorriko siranak. Ser egiñ onetan asiziran besela, jaikisan Chichi eta agiñak erakusita ariñ ariñga joansan saukas ataira. Machinek, nortzuk siran esaututa, egieutzan didarra: To Chichi ¡lekura! Makur makur eginda sartusan chakurra bere basterrean, eta batera echean lelengo bigirara eltzenziranak.

Saspi eta lauren saspi-t-erdiertara isangouran, Bedargosoko sukaldetan amalaubat neska mutill ausoko baserrietakoak batusiranean. Au aulki baten, bestia kopelet baten ganian, nor surbillbaten ganian jarriziran eta danok artos beteriko otzarren aurrean asiziran biarrean eta ipuiñak esaten. Bitartean Machalenek iratzidutu bejjak, botadau sutara ota eta egor mee besakada bat eta gar aretan ipiñidau esnea egosten: Mariñazik, sutondoan jarrita, jira egitendeutza latzetik esegita dauen gastiñas beteriko tanboliñari.

Arto garauntea aurrera dua, eta ipuiñ kontariak miñ ariña badau es ditu geldi atzaparrak. Baña kanpaia da elexan, arimana joten diardu. Machalenek esan eta besteak erantzun ditube Aita-Gure batzuk, izan diranak gaiti, eta gelditzenda biarra gastiñak jateko eta esnea artzeko, baita ordura arte gordeta egondan pichar bat ardo edateko.

Jan edanean jardundabe orduerdiren bat eta jarri dira barriro biarrian, baña orain sabela bete eta ardoaren berochoarekin esiñ entzun dira ipuiñak, danok dauke ser esan eta es dira izan biar gausa negargarriak, sergaitik alde gustietan entzuten dira barre alayak. Geroago eta geyago siran kontubak eta barre algarak, baña andienak izan ziran

Joŕe Marik Panchikari mokorrean achimurka eginda, Panchikak barre andi bat eginda sorbaldan sapladakoa emanetzanean. Beste aren beste egieben beste basterrean Peru eta Marichuk. Beste aldebatetik jaurtietuzen arta koskor bat Peruri onek jaurtietuzan Pachichuri, Pachichuk erantzueban, eta batak eta bestiak erantzundabeti san arta-koskorra aidian eta barreak eta garrasiak geroago eta andiago andik, eta, Machalenek galaso esinik, arta koskor batek krusuluba jo eta amatatu arte.

Orduban Machalenek artueban krusuluba eskubatean eta chingor baten putz eginda bistuseban barriro, eta, belu izanda, baziran amai-kak, gabonak emanda bialdusitusan urrengo arte, es lenago bidea argitzeke lasta molso batzuk emanbarik. Biŕamonean batuziran barriro beste aren beste neska mutill beste ausokoetakoak; gichi gora bera izanziran aurreko arratzian leges eta nai eta barriketa asko egin es ziran izan geldi eta amaitusan arto garautzea. Orrela izansitusan prest eraman biar situsan ogei anegak. Urte bete barru Bedargoson egon ziran neska mutillen artean, izandira iru eskontza, baña ezdire eskon-du nai eben guztijak. Estegu bat paltajako abade jaunari.

Orra sergaitik san asarre abade jauna.

RAFAEL MURGA MUGARTEGI.



*La Correspondencia de España* ha abierto concurso sobre el tema: *¿En qué consiste la belleza de la mujer?* y nuestro chispeante colaborador Marcelino ha enviado la solución siguiente:

¿El ser bella la mujer  
en qué consiste es el tema  
presentado á mi entender  
como ingenioso problema  
difícil de resolver?

¿La belleza? ¡Vaya un chiste!  
contestar sin gran tortura  
sencillo se me figura,  
porque consiste... consiste.,,  
¡pues! en la consistidura.

San Sebastian.

MARCELINO SOROA.

